

ASMATZAILEAK

Eguneroko arazoei irtenbidea eman eta guztion bizitza errazteko irrika

Milaka eta milaka objektuz inguraturta gaude. Guztien artean, ezinbestean, asmatzaile bat dago, buruari eragin, probatu eta objektua edo produktua sortu duen norbait. Imanol Murua donostiarrak hamabi bat urte daramatza asmatzen eta sortzen. Produktu kimikoak saltzen zituen enpresa batean lanean ari zela, merkaturatzen zuten makina bat produktu egon arren, jendea, behin eta berriro, irrist egin eta lurrera erortzen zela ikusita hasi zen buruari buelta eta buelta. Enpresako ki-

GIZARTEA / azurutuza@gaur8.info - amujika@gaur8.info

Gazte-gaztetan hasi zen lanean Imanol Murua donostiarrak, eta, duela hamabi urte, enpresa bat sortu zuen zoru irristakorrei aurre egiteko asmoz. Milaka eta milaka proba egin ostean, gaur egun edozein lurzoru ez labaingarri bihur dezakeela dio. Tartean, Pisafirm produktu kimikoa asmatu eta patentatu du. Gogotsu segitzen du asmatu eta asmatu.


mikariarekin batera formulazio ezberdinak probatzen hasi zen zoruen labaingarritasunari aurre egiteko asmoz. Formula egokia eskuratu zuen, eta, hala, «Peugeot 205 eta fregona batekin», enpresa bat sortu zuen Astigarragan. Gaur egun edo-

zein zoru ez labaingarri bihur dezakeela dio.

Pisafirm produktu kimikoa da bere asmakizun nagusia, diru-iturri nagusia bederen. Bainuontziatarako produktu hori da merkaturatuta duen bakarra eta burdindegi industria-

Ezkerrean, Imanol Murua. Eskuinean, goialdean, bainuontziatarako irrist eze egiteko ematen den Pisafirm produktua. Azpian, oinetakoetan jartzen den Deslistop sistema.

JUANAN RUIZ | ARGAZKI PRESS



Ikerketaz eta garapenez zein enplegua sortzeaz hainbeste hitz egiten den garaioan instituzioen laguntza eza salatu du Murua: «Nik ez dut euro bakar bat ere jaso, eza azoketara joateko ere». ICO maileguak lortzeko dauden zailtasunak ere kritikatu ditu

neko kateetara pasa baginen oinetakoentzat ere halakorik sor zitekeela». Hala, igurzketa eragiten duen milaka mikrokopapildun sare bat sortu zuen, eta, Muruaren arabera, oinetakoen azpian jarrita irrist egitea eragotzen du, «baita izotzean, olian, goroldioan edota izugarri irristakorrak diren txalupetako zuntzezko lurretan ere».

Diru asko inbertitu behar izan duela azaldu digu, asmakizun bakoitza lortzeko lan handia egin behar izan duela nabarmenduz. Oro har, asmatzaileak pertsona arruntak direla dio; hori bai, guztian arreta handia jartzen dute. Horrekin batera, gaur egun merkaturatzen denetarik dagoela eta zailena jende guztia izan nahi duen gauza xumeak asmatzea dela ziurtatu du. Esaterako, «zenbat milioi klip saltzen dira egunero?» galdetu

eta honakoa gaineratu du: «Kontuan izan tolesturiko alantze bat baino ez dela!».

Asmakizunen mundua zabala da oso. Donostiarrak azaldu digunez, asmakizunak eta erabilgarritasun ereduak bereizi behar dira. Asmakizunak guztiz berriak dira, ez dago antzekorik; erabilgarritasun ereduak, berriz, objektu ezberdinen batura dira, edo hobekuntza bat, zoru-garbigailua esaterako. «Lehen makurtuta garbitzen zuten lurra, norbaitek makil bat jarri zion arte, hala, zoru-garbigailua erabilgarritasun eredu da, ez asmakizuna».

PATENTEAK

Patenteak zuzen-zuzenean daukete lotuta asmakizunekin; 20 urteko iraupena du asmakizun baten patenteak. Produktu bat herrialde bakarrean patentatu duteke, Estatu espainiarrean adibi-

dez, edota Europar Batasunean, munduko edozein herrialdetan eta mundu mailan. Diruarekin egiten dugu topo hemen ere. Muruak azaltzen duen bezala, Estatu espainiarrean produktu edo objektu bat patentatzeak 2.000 euro inguru balio ditu; urteroko mantenuak, berriz, 500 euro inguru. Europar Batasuneko patenteak, aldiz, 6.000 euroko kostua du, eta, mantenuak 900 euro inguru urteko.

Langile arrunt batentzat inbertsio handiak dira. Muruak, esaterako, Pisafirm Estatu espainiarrean baino ez du patentatua, «hasi nintzenez ez nuelako gaitasun gehiago, ez nuen dirurik». Hori dela eta, multinazional handiek jaten dute merkaturak. «Henkel enpresak, adibidez, 80 produktu ditu mundu osoan patentatuta, Nokia 2.000 patente ditu eta 3Mk 12.000!», ohartarazi du.

«Piratak» ere gertu dabiltzala argitu digu. «Patenteei begira dagoen jende asko dago, diru falta dela-eta mantenua ordaindu ezin dutenen kasuak; ondoren, baliabideak izanez gero

letan dago salgai. Gainontzean, enpresa bera da Pisafirm produktu kimikoa hamaika kale, komertzioa eta eraikinetan jartzeaz arduratzen dena. «Gipuzkoako udal guztiekin egiten dugu lan; eskoletan, kirolegietan, lantegietan, etxe atarrietan, dendetan, kaleetan... aritzen gara», azaldu digu Muruak. Lurzoru mota ezberdinentzat aplikazio ezberdinak sortu ditu hamaika proba amaigabe egin ostean.

Araza bat ikusten duenean konponbidea non egon daitekeen galdetzen dio bere buruari. Hala, lurzoru bat ez labaingarri bihurtu arren, gainean izotza, olio edota goroldioa bazuen irristakorra izaten jarraitzen zuela ikusi zuen. Arazoa konpontzeko, Deslistop produktua sortu zuen. Oinetakoetan jartzen den sistema bat da, oinetakoetarako sandalia moduko bat. Nola bururatu zitzaion halakorik egitea? «Pentsatu nuen autoetako metalezko kateetatik ehu-

produktua ekoizten hasteko zain izaten dira». Izan ere, «gu jende arrunta gara, lan arrunt batekin, ez gara multinazionalak eta ez ditugu milaka eta milaka euro».

Asmakizun bat merkaturatzea ez da lan erraza. Patentatzeaz gain, munduan zehar egiten diren hamaika azoketara joan behar izaten dute asmatzaileek euren produktua zabalitzeko ahaleginean, inbertitzaile bat lortu, erosleren bat bilatu edo merkaturatzeko akordioaren bat adostera. Muruari, adibidez, azoka batean parte hartzeak 3.000 euroko kostua sortzen dio.

Badu laguntza txiki bat donostiarrak, Estatu espainiarrean sari eta ziurtagiri gehien dituen pertsona baita. Pisafirmekin lortu ditu gehienak; besteak beste, Ginebrako asmatzaileen azokan urrezko domina eman zioten. Alemaniako lena eta Hego Koreako Kipa nazioarteko azoketan ere zilarrezko domina bana jaso zituen. Guztira, urrezko sei domina eta zilarrezko lau eta hamaika kopa lortu ditu asmatu dituen gailu ez labaingarriekin.